



mutualia



MEMORIA

2016



ZURE **SEGURTASUNEAN** PENTSATZEN, **HOBETUZ GOAZ**



Ignacio Lekunberri Hormaetxea
zuzendari gerentea
MUTUALIA

ANTONIO GUTERRES jn.
idazkari nagusia
NAZIO BATUAK
New York, NY 10017 USA

Guterres jaun estimatua,

Gutun honen bidez, Mutualiak, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean aritzen diren 2. zk.ko mutualitateak, Munduko Itunaren eta horren barneko Hamar Printzipioen ekimenaren aldeko konpromisoa berritzeko asmoa duela adierazi nahi dizu.

Jakinarazpen horren bitartez, printzipio horiek gure jarduera guztietan eta eragin-eremuan bultzatzeko eta ezartzeko asmoa adierazten dugu.

Mutualiak etengabeko hobekuntzaren alde egin du apustu eta horren adibide da 2009an hitzarmenarekin bat egin eta ondoren hainbatetan konpromisoa berri izana, helburuak eta Munduko Itunaren printzipioak betetzeko.

Munduko Itunarekin bat egiteak aukera eman digu jasagarritasuna gure estrategian eta kudeaketa-sisteman txertatzeko, eta hori gure jarrera konprometitu eta proaktiboaren erakusle da. Horri eustea erronka handia da gure erakundearen ezaugarriak direnak izanda.

Gainera, konpromiso horren berri ematen diegu gure interes-taldee eta, oro har, herritarrei, eta konpromiso horri berari esker komunikazioa arina eta gardena da horiekin guztiekin.

2016an egindako ekintzak ituneko hamar printzipioekin konprometituta gauden isla dira, eta 2016ko ekitaldiko urteko memorian jasota daude.

2017an ere ildo horri tiraka egingo dugu lan, giza eta lan-eskubideen defentsa, ingurumenaren babesa eta ustelkeriaren aurkako borroka are gehiago hobetzeko, hala enpresan bertan nola enpresatik kanpo.

Gizarte erantzukizuna abagune bat da enpresentzat, bai hazten jarraitzeko bai berrikuntzarako.

Adeitasunez

Gizarte Segurantzarekin lankidetzan duen 2 zk.ko Mutua
Mutua colaboradora con la Seguridad Social n° 2

AURKIBIDEA

01

Korporazioaren adierazpena

Presidentearen gutuna
Zuzendari Kudeatzailearen gutuna
Aurkezpena eta irismena

02

Gobernu- eta partaidetza-organoak

Batzar Orokorra
Zuzendaritza Batzordea
Batzorde Exekutiboa
Zuzendari kudeatzailea
Kontrol eta Jarraipen Batzordea
Prestazio Berezien Batzordea
Zuzendaritza Batzordea
Kudeaketaren jarraipena

03

Nor gara

Erakundearen profila
Kudeaketa-eredua
Kode etikoa
Nazio Batuen Munduko Hitzarmenera atxikitzea
Esparru juridikoa

04

Konpromisoa eta interes-taldeen parte-hartzea

05

Emaitzak 2016

Kaudimena
Laguntzaren kalitatea
Bezeroarenganako orientazioa
Kudeaketa aurreratua
Pertsonen konpromisoa
Ospe korporatiboa

06

Eskakizunen mugaketa eta
GRI adierazleak

07

Urteko Kontuak



01

KORPORAZIOAREN ADIERAZPENA

PRESIDENTEAREN GUTUNA

ZUZENDARI KUDEATZAILEAREN GUTUNA

AURKEZPENA ETA IRISMENA

PRESIDENTEAREN GUTUNA



UR TSA ERRAZTI Y OLARTECOECHEA

Mutualista estimatuak:

Atsegin handiz aurkezten dizuegu 2016. urteari dagokion urteko memoria. Ekitaldi honetan, ekonomiaren krisialditik irteten ari garela berretsi da.

2016an, Euskadiko ekonomiak –horixe da Mutualiaren jarduera-eremu nagusia– oso zabalkuntza-maila nabarmengarriak izan ditu urte osoan zehar, aurreikusi gabeko inertiari esker. Zehazki, euskal ekonomiaren hazkundera BPGaren % 3,1 izan zen; hau da, 2015eko emaitza baino bi hamarren altuago kokatu zen.


Ekonomiaren sektorearen arabera, zerbitzuak eta industria hazi ziren gehien: % 3,3 eta % 3,2, hurrenez hurren. Horri eraikuntzaren susperraldia gaineratu behar zaio, bereziki, bigarren hiruhilekotik aurrera.

BPGak erakutsitako indarra lan-merkatura hedatu zen, eta enplegua % 1,9 hazi zen. 2016an 16.000 lanpostu baino gehiago sortu ziren, eta, lau urte eta erdiren ostean, berriz ere gainditu zen 900.000 lanpostuen zifra Euskadin.

Afiliazioaren bilakaerarekin batera, zuzenean Mutualiaren egoera ekonomikoari eragiten dion beste faktore bat soldatak dira, kotizazio bidezko diru-sarrereren bitartez.

Ekonomiaren bilakaera onagatik ere, langile bakoitzeko lan-kostua apur bat beheratu zen (–% 0,9) 2016. urtean, oro har. Hala, hiru urtez jarraian gertatu dira beherakadak.

Euskadiren BPGaren benetako bilakaera



Horregatik, urtez neurritsuak izan ondoren, adituak bat datoz enpleguaren egonkortasuna handitzearen alde egin behar dela adieraztean, ezinbestekoa baita Gizarte Segurantzaren sistema, epe laburrera, eta pentsioen sistema, epe luzera, jasagarriak izan daitezzen.

Helburu berarekin, laneko arriskuen prebentzioa sustatzen eta bultzatzen jarraitu dugu. Ildo beretik doa kontingentzia profesionalengatikotizazioen sistemen murrizketa ere, laneko istripu-tasak nabarmen gutxitu dituzten enpresentzat. Horri BONUS pizgarri esaten zaio, eta etorkizunean eskuratzeko errazagoa izango da.

Hala ere, Espainiako laneko absentismoa jardueraren gorakada baino gehiago hazi da, ekonomia suspertzen ari den seinaleekin bat, bereziki, aldi baterako ezintasuna dela-eta lan egin ez diren orduei dagokienez. Sektoreka, 2016an honako hau izan zen absentismo-tasa: % 5 zerbitzuetan, % 4,8 industrian, eta % 3,1 eraikuntzan, Estatu osoan. Tasa orokorra % 4,88 izan zen; hau da, 2007an lortutako maximoaren zazpi ehunen gutxiago soilik.

Lan egin ez diren orduak zenbatzen badira, adostu direnen aldean, Euskadi absentismoaren buruan kokatu zen 2016an: 305 ordu galdu zituen langile bakoitzeko; hau da, Balearretan baina ehun gehiago.

Horrek oso kostu handia ekartzen die enpresei, batez ere kontingentzia arruntetan, eta aukera-kostuari gehitu behar zaio ekoizpen-ahalmenari dagokionez.

Gainera, absentismo-tasa handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino; izan ere, gaur egungo gizartean familian erantzukizun handiagoa hartzen dute beren gain.

Ilido horretan, Mutuialiak aspalditik sustatzen ditu bateratze-neurriak, benetako parekidetasuna lortu nahian, ezertan kaltetu gabe garatzen hasi garen politika berriak: osasunaren sustapenarekin, hezur- eta muskulu-sistemen nahasmenduen prebentzioarekin nahiz laguntza-programa espezifikoeekin lotutakoak.


Horrez gain, laneko ordutegien arrazionalizazioa eta familiako eta laneko bitzta bateragarri egitea erraztuko duten malgutasun-sistemen hobekuntza ere bultzatzen ditugu.

Mutuialiaren Prestazio Berezien Batzordean, 2016an prestazio berri bat onartu genuen istripua izan duten autonomoei gizarte-laguntza emateko, aldi baterako jardunean ez dagoen negozio baten gastuak jasan behar badituzte, edo jarduerari eusteko handitu behar badituzte. Horrenbestez, haien negozioen bideragarritasuna eta jarraitutasuna bultzatzen ditugu.

Logikoa den moduan, erronka garrantzitsuak ditugu oraindik; hala ere, horietako batzuetan iazko ziurgabetasun bera dugu oraindik ere. Mutuen Legea garatu behar duen Erregelamenduaren argitalpenaz ari naiz; izan ere, ezin da esan berria denik, 2015eko urtarrilean argitaratu zenez. Beste erronka bat izango da kontingentzia arrunten kudeaketak gure eraginkortasun-mailak ez eragozteko lortzea, finantzaketa egokia ez izateagatik. Hori ere ez da berria. Eta, jakina, gure kudeaketa-sistema hobetzen jarraitzea, bezeroen, pertsonen eta gure gainerako interes-taldeen gogobetetasun-maila handienak lortzeko. Horrela soilik esan ahal izango baitugu gure zeregina –laburbilduz, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan– ongi betetzen dugula.

Eskerrak eman nahi dizkiet gure mutualistei beren leialtasunarengatik, gure profesional taldeari beren ahaleginarengatik eta ezaugarri ditugun balio guztiak betetzeagatik, eta Zuzendaritza Batzordea eta gainerako gobernu-organoak osatzen dituzten pertsoneri, beren konpromiso eta ardurarengatik. Elkarrekin, talde eraginkor, profesional, abangoardista eta gardenagoa eratzen dugu.

Eskerrik asko zuen babesarengatik.





ZUZENDARI KUDEATZAILEAREN

GUTUNA



IGNACIO LEKUNBERRI HORMAETXEA

Mutualista estimatuak:

2016ko uztailean, Batzar Nagusian, Mutuen Lankidetzaren Erregelamendu berria iaz argitaratuko zela aurreikusitua izan da. Ez da hala izan. Urtebete igaro da, eta Mutuaren Legea garatu eta lege horretan guztiz zehaztu gabe dauden hainbat alderdi argitu behar dituen arauaren zain gaude oraindik. Baina denbora aurrera doa, eta Erregelamendu berriarekin nahiz gabe, Mutuak lanean jarraitu du, 2015-2017 aldirako Plan Estrategikoan zehaztutako helburuak lortzeko asmoz.

Erronka horien artean lehena ospe onaren eta arriskuen kudeaketaren hobekuntza da, iaz iragarri moduan. Ez dira ekitaldi bakar batean lortzeko moduko erronkak. Ezta Plan Estrategiko bakar baten testuinguruan lortzeko modukoak ere. Baina ezin dugu, horren ondorioz, erabakiak hartzea eta lehenbailehen praktikan jartzea atzeratu. Horiek horrela, eremu horietako lehen urrats gisa, gure kultura korporatiboa zehazten edo, hobeto esanda, esplizitu bihurtzen hasi gara. Aurrez ere existitzen zen kultura hori, Mutuak kide guztiak gure jokabideak gidatzen dituzten sei balioak aukeratzeko bildu baino lehen, baina ez zegoen adostuta, barneratuta eta, nik uste garrantzitsuena hau dela, ez gure kudeaketa-planik kultura horren iraupena bermatzeko.

Orain, balioak aukeratu, partekatu, eztabaidatu, barneratu eta gure proiektuetan praktikan jarri ondoren, hobekuntza ziurtatzeko lanean ari gara, bikaintasunari dagokionez. Lanean ari gara, orobat, kultura hori argitaratzeko lagungarriak izango diren erakunde-testuinguru eta -antolamendua eratzeko. Bestalde, arriskuen kudeaketa zabaldu egingo da, barne har dezan kultura korporatibo honen definizioetik eratorritako arrisku etikoen kudeaketa ere.

Duela urtebete esan nuen, halaber, Mutuialiak eta sektoreak beste erronka garrantzitsu bat zutela: hain zuzen, finantzaketa egokia lortzea kontingentzia arruntak ziurtatzeko. Ildo horretan, lortu dugu kontingentzia arruntan kontuan defizita egonez gero erreserben zuzkidura-sistemak ez dezala zehatu mutuaren kaudimena. Oraingoz, lanean jarraitu beharko dugu, diru-sarrerak benetako prestazioen mailara egokitu daitezela lortzeko.

Horiek ziren premia handieneko erronkak, eta oraindik ere hala dira, baina badira mutua jasangarriagoa lortzen lagunduko duten beste batzuk ere. Gure zerbitzuen kalitatea hobetzea, bezeroen nahiz Mutuialian dihardugun pertsonen gogobetetasuna handitzea eta, oro har, gure kudeaketa eredu perfektionatzea gure estrategiaren funtsezko oinarriak dira. Eta esan dezakegu lorpen handiak izan ditugula horietan guztietan. Plan Estrategikoan erakundearen kaudimenari dagokionez finkatutako helburuak bete ditugu. Osasun-laguntzaren arloan hobetzen eta ziurtagiriak lortzen jarraitu dugu. Gure bezeroen gogobetetasunak nota altuak lortzen ditu oraindik ere, eta Mutuialiak Euskadin duen merkatu-kuota inoiz baino handiagoa da. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak, Euskalit bitartez, pertsonen kudeaketari dagokionez Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Sariarekin aitortutako lehen erakundea izan gara.

Argi dugu hobetzen jarraitu behar dugula. Horixe da gure izaera. Argi dugu zer erronka ditugun, halaber. Arestian adierazi bezala, kontingentzia arruntan kudeaketarako behar besteko finantzaketa lortzea eta Mutuialien izen ona hobetzea ziren gure erronka nagusiak, eta oraindik ere badira; horiei gaineratu behar zaie, gainera, gure zerbitzuen eta kudeaketa ereduaren etengabeko hobekuntza, gure interes-taldean gogobetetasuna lortzeko bitarteko gisa.

Memoria honetan zehar agerian geratzen da, lortutako emaitzak eta egindako lana tarteko, Mutuialiak talde bikaina duela.



AURKEZPENA ETA IRISMENA



MUTUALIA ZIFRETAN

3

klinika



14

laguntza zentro



3

egoitza



EGOITZA SOZIALA

Camino kalea 1
20004 Donostia

EGOITZA OPERATIBOA

Henao kalea 26
48009 Bilbo

ARABAKO EGOITZA

Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 10 bis
01008 Vitoria - Gasteiz



Batez beste **583** langile
Pertsona

279 milioi kuota

10,2 milioi Gizarte
Segurantzaren
Funtsera

899.987 € prestazio berezietan

395 pertsona baliatu dira
bateratze-neurriez

28 Mutualia Ikasgela

Gizarte-lankidetzako 32 proiektu

Ziurtapenak, sariak eta errekonozimenduak



Kalitatea Kudeatzeko Sistemari buruzko ISO 9001 ziurtapena



Ingurumena Kudeatzeko Sistemari buruzko ISO 14.001 ziurtapena



Laneko Segurtasun eta Osasun Kudeaketa Sistemari buruzko OHSAS 18001 SST-0073/2011 ziurtapena



Pazienteen Segurtasunaren Arriskua Kudeatzeari buruzko UNE EN ISO 179003 ziurtapena



Osasun Laguntzarekin lotutako Infekzioak Zaindu Prebenitu eta Kontrolatzeko Sistemari buruzko UNE EN ISO 179006 ziurtapena, Pakea eta Ercilla klinikentzat



Energia Kudeatzeko Sistemari buruzko ISO 50001 ziurtapena



Familia Erantzukizuneko Enpresa ziurtapena (EFR)



Q Jasangarriaren ziurtagiria Henaokaleko eta Ercilla Klinikako gure eraikinentzat, Q jasangarria Evolution Plus kalifikazioarekin



DIGA HIRU IZAR ziurtapena (irisgarritasun maila adierazten duen bereizgarria), gure Gardentasun Atariari



Irisgarritasun Unibertsalari buruzko ziurtapena, DALCO irizpideen arabera (UNE 170.001-1 araua), Henaoko, Ercillako eta Beasaingo gure zentroentzat, 5 izarreko mailan



Irisgarritasun Unibertsalari buruzko ziurtapena, DIGA (irisgarritasun maila adierazten duen bereizgarria) espezifikazio teknikoaren arabera, gure Basauri, Erandio eta Lurretako zentroentzat, 4 izarreko mailan



Irisgarritasun Unibertsalari buruzko ziurtapena, DIGA (irisgarritasun maila adierazten duen bereizgarria) espezifikazio teknikoaren arabera, gure Gernikako zentroentzat, 3 izarreko mailan



«Berdintasuna Enpresan» egiaztagiria, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak emana



Finalista Bikaintasunerako EFQM Europako Sarian



Iberoamerikako Kalitate Saria, zilarrezko errekonozimendua, «Erakunde Publiko Handia» kategorian



DIPLOOS saria, Laneko Segurtasuneko Espainiako Trofeoa.



Laguntza-kalitatearen arloko bikaintasunari aintzatespena, Gizarte Garapen eta Integrazioarako Institutuak (IDIS) emandakoa



euskararen bidean



PREMIO VASCO
A LA GESTIÓN AVANZADA

Euskal Saria Pertsonen Kudeaketa Aurreratuari

Memoria honi eta honen irismenari buruz



2005etik, Mutu Aliak bere urteko metodologiak argitaratzen ditu, Global Reporting Initiative (GRI) metodologiari jarraikiz, dokumentu bakar batean bilduta erakundearen urteko informazioa eta jasagarritasun-txostena.

Honekin, hamabi memoria egin dira G4 gidaliburuaren gidalerroei jarraikiz. Gure helburua da estandar horien «araberako» Zorrotza aukera betetzea, kontuak argi eta eraginkortasunez ematea, eta urtetik urtera jasagarritasunaren kudeaketa hobetzea, gure jardueren bitartez balio handiagoa lortzeko gizartearen eta ingurumenaren arloan.

Kudeaketa jasagarriko memoria integratu honi ez zaio egin kanpo-ziurtapeneko prozesurik, legez egin beharreko ez gain; izan ere, ezarrita dago bi urtez behin kanpo-egiaztapena egingo zaiola. CoP aurreratua kategoriako betetze-mailaren ziurtapenerako, Itun Globalaren Espainiako Sareak egin zuen egiaztapena.

Memoria hau egiteko, erakundearen alor guztietako ekarpenak eta informazioa erabili da, 2016ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko aldiari dagokionez, eta gure interes talde guztientzat kontsultarako balio dezala da gure asmoa.

2016ko memoria Gasteizen 2017ko uztailearen 21ean egindako Ohiko Batzar Nagusian aurkeztu, onartu eta baliozkotu zen. Batzar horretan, formatu digitalean eman genuen ekitaldiko finantza-informazioa.

Memoria hau Aurrerapenari buruzko Komunikazioaren (CoP) baliokidea da. Nazio Batuen Itun Globalak eskatzen du, eta haren bitartez ekimen horrekiko dugun konpromisoa berresten dugu, baita Mutu Aliak Garapen Jasagarriaren Helburuekin (GJH) duen konpromisoa ere. Helburu horiek Nazio Batuen 2015eko goi-bileran onartu ziren.

GRI adierazleen taulan, GJHekiko bateratasuna eta Itunaren hamar printzipioekiko bat-etortzea sartu dugu.

Memoriaren kalitatea eta edukia zehazteko printzipioak.

1. Oreka

Mutualiaren memoriak erakundearen jardueraren alde positibo zein negatiboen berri ematen du, sortutako itxaropenak bete ez direnean; horrela, interes taldeek arrazoizko balioespen bat egin ahal izango dute.

2. Konparagarritasuna

Interes-taldeak Mutuliak denboraren joanean izan dituen aldaketak azter ditzakete, zeren txostenean agertzen diren datu kuantitatibo guztiak aurreko urtekoekin alderatzen baitira, batzuetan baita aurreko bi urtekoekin ere; horrela, erakundeak bere jarduera garatzean izan dituen aldaketak aztertu eta erka daitezke.

3. Argitasuna, zehaztasuna eta sakontasuna

Informazioa era sistematikoan adierazi da; aurkibide orokor bat (memoria errazago irakurtzeko) eta GRI adierazleen aurkibide global bat (adierazten diren datu kualitatibo eta kuantitatiboen eskuragarritasuna eta kokapena errazten du), gure interes-taldeein termino teknikoak, ahal den heinean, era ulerterrazean azaldu eta egokitzeaz gain.

4. Puntueltasuna

Txosten hau urtero egiten da, erakundearen ezaugarriak eta Mutuliak garatzen dituen jarduera guztiak kontuan izanda; bertan, erakundearen ekonomia, gizarte eta ingurumeneko zereginari buruzko informazio bermatua dago.

5. Fidagarritasuna

Urteko memoria honetan bildutako datuak eta informazioa gure erakundearen 2016. ekitaldian gauzatutako jarduerari buruzkoak dira, eta prozesuak kudeatzeko informazio-sistemen bidez lortu dira; hala nola, AS/400, SAP R/3, PRISMA eta EPSILON, SICOMAT, COGNOS, MIDENET eta prozesu bakoitzerako kalkulaturako adierazleak.

6. Interes-taldeen parte-hartzea

Mutuliak interes-taldeak identifikatzen ditu eta haiekin etengabe elkarrizketan jarduten du, horrela haien itxaropen eta interes guztiei erantzun ahal izateko.

7. Jasangarritasunaren testuinguru estrategikoa

Erakundeak tokiko, eskualdeko eta nazio-mailako ekonomia, gizarte eta ingurumena garatzen laguntzen du, bere aukeren baitan eta beti era interkonektatuan.

8. Materialtasuna

Mutuliak erakundearen gizarte, ekonomia eta ingurumeneko inpaktu esanguratsuenek adierazten dituzten alderdiak edo gure interes-taldeen ebaluazioetan eta erabaketan eragin dezaketen alderdiak estaltzen ditu.

Materialtasunaren analisia



Materialtasunaren analisia da gai komunak eta garrantzitsuenak aukeratzeko erabiltzen dugun tresna, eta prozesu jarraitu eta sistematiko baten ondorioz ateratzen da, bai Mutualia bai gure interes-talde guztiak tartean sartuz. Urtero prozesu hori aberasten dugu, gure kudeaketa eta erantzuteko gaitasuna hobetze aldera.

Egindako materialtasun-inkestaren bitartez, Mutuialiak erakunde gisa kontuan hartu behar dituen gai garrantzitsuenak identifikatzeko aukera eman diegu gure interes-taldee.

Informazio horri esker, memoriako edukiak zehaztu ditzakegu, estrategia interes-taldeen behar eta itxaropenekin bat datorrela berma dezakegu, eta haien iritziei buruzko ikuspegi osoagoa lor dezakegu.

Taula honetan ikus daiteke zein diren gai garrantzitsuenak, Mutualiaren kudeaketaren arloan, interes-talde bakoitzerako:

INTERES-TALDEA	GAI GARRANTZITSUAK
Aliatuak eta hornitzaileak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Produktuaren gaineko erantzukizuna: bezeroaren osasuna, segurtasuna eta pribatutasuna 2. Enpresaren jarduera ekonomikoa 3. Laneko praktikak eta taxuzko lana: laneko osasun eta segurtasuna 4. Laneko praktikak eta taxuzko lana: dibertsitatea eta aukera-berdintasuna
Sozietatea	<ol style="list-style-type: none"> 1. Sozietatea, araudia betetzea: legea ez betetzeagatik jasotako isunak 2. Produktuaren gaineko erantzukizuna: bezeroaren osasuna, segurtasuna eta pribatutasuna 3. Laneko praktikak 4. Presentzia merkatuan 5. Giza eskubideak: elkartzeko askatasuna eta hitzarmen kolektiboa 6. Sozietatea, araudia betetzea: legea ez betetzeagatik jasotako isunak 7. Laneko praktikak eta taxuzko lana: laneko osasun eta segurtasuna 8. Ingurumen-araudia betetzea: legea ez betetzeagatik jasotako isunak
Gobernu- eta partaidetza-organoak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Laneko praktikak eta taxuzko lana: laneko osasun eta segurtasuna 2. Enpresaren jarduera ekonomikoa 3. Presentzia merkatuan 4. Ingurumen-araudia betetzea: legea ez betetzeagatik jasotako isunak 5. Laneko praktikak eta taxuzko lana: dibertsitatea eta aukera-berdintasuna 6. Sozietatea, araudia betetzea: legea ez betetzeagatik jasotako isunak 7. Produktuaren gaineko erantzukizuna: bezeroaren osasuna, segurtasuna eta pribatutasuna 8. Produktuaren gaineko erantzukizuna: produktu eta zerbitzuen hornikuntzarekin eta erabilerarekin lotutako legeak eta arauak betetzea
Bezeroak: enpresak eta aholkularitzak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ingurumen-araudia betetzea: legea ez betetzeagatik jasotako isunak 2. Laneko praktikak eta taxuzko lana: laneko osasun eta segurtasuna 3. Produktuaren gaineko erantzukizuna: bezeroaren osasuna, segurtasuna eta pribatutasuna 4. Enpresaren jarduera ekonomikoa 5. Laneko praktikak eta taxuzko lana: kontratazioa, txandak, prestazio sozialak, etab. 6. Sozietatea, araudia betetzea: legea ez betetzeagatik jasotako isunak 7. Laneko praktikak eta taxuzko lana: dibertsitatea eta aukera-berdintasuna 8. Produktuaren gaineko erantzukizuna: produktu eta zerbitzuen hornikuntzarekin eta erabilerarekin lotutako legeak eta arauak betetzea

Aurreko guztiaren emaitza zerrenda batean kontsolidatu da; bertan jaso dira ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren arloko zortzi gai garrantzitsuenak, lehentasunak jasotako informaziotik abiatuta ezarriz, eta balorazio egiteko barne-metodologia erabiliz.

Hona hemen gai garrantzitsuak:

ALDERDIAK	Puntuazioa	ESTALDURA	
		BARRU-KOAK	KAN-POKOA
1. Alderdi sozialak. Laneko praktikak eta taxuzko lana: laneko osasuna eta segurtasuna	HANDIA	Barrukoa	Kanpokoak
2. Alderdi ekonomikoak: Enpresaren jardura ekonomikoa	HANDIA	Barrukoa	Kanpokoak
3. Alderdi ekonomikoak: Presentzia merkatuan	HANDIA	Barrukoa	Kanpokoak
4. Alderdi sozialak. Produktuaren gaineko erantzukizuna: bezeroen osasuna, segurtasuna eta pribatutasuna	HANDIA	Barrukoa	Kanpokoak
5. Alderdi sozialak. Produktuaren gaineko erantzukizuna: produktu eta zerbitzuen hornikuntzarekin eta erabilerarekin lotutako legeak eta arauak betetzea	HANDIA	Barrukoa	Kanpokoak
6. Ingurumeneko alderdiak: araudia betetzea	HANDIA	Barrukoa	Kanpokoak
7. Alderdi sozialak. Laneko praktikak eta taxuzko lana: dibertsitatea eta aukera-berdintasuna	HANDIA	Barrukoa	Kanpokoak
8. Alderdi sozialak. Sozietatea: araudia betetzea	HANDIA	Barrukoa	Kanpokoak

Merezi du nabarmentzea ezen, lehentasunak ezartzeko jardueraren ondorioz 8 gai material atera arren, zabaltzeko egokitzat jotzen dituen gai guztiei buruzko kontuak ematen dituela. Mutualiak memoria honetan.

Kontaktu-gunea

Interesdunek hemen eskuratu dezakete memoria:
www.mutualia.es; halaber, Itun Globalaren Espainiako Sarearen web-orrian:
<http://www.pactomundial.org/informes-de-progreso/>.

Dokumentu honetan emandako informazioa kontsultatzeko edo osatzeko, posta elektronikoko helbide honen bidez jar daiteke Mutualiarekin harremanetan:
ReputacionCorporativa1@mutualia.es





A vertical photograph on the left side of the page shows a building facade. A sign with the text 'KUNTA' and 'ERROLD' is visible. The image is partially obscured by the large blue number '02' and the main title.

02

GOBERNU- ETA PARTAIDETZA- ORGANOAK

Batzar Orokorra

Zuzendaritza Batzordea

Batzorde Exekutiboa

Zuzendari kudeatzailea

Kontrol eta Jarraipen Batzordea

Prestazio Berezien Batzordea

Zuzendaritza Batzordea

Kudeaketaren jarraipena

Batzar Orokorra

Mutuaren goi-mailako gobernu-organoa da, enpresaburu elkartu guztiek, atxikitako langileen ordezkariak batek (35/2014 Legearen araudi-garapenak zehazten dituen baldintzetan) eta mutuaren mendeko langileak ordezkatzeko dituen langile batek osatua.

Urtean behin egiten dituzten ohiko bilerak, aurrekontuen aurreproiektua eta urteko kontuak onartzeko; ezohiko bilerak, aldiz, Zuzendaritzak Batzordeak deitzen duen aldi guztietan egiten dituzten, edo beren betebeharrak sozialak egunean dituzten enpresaburu kideen % 10ek Zuzendaritza Batzordeari eskatzen dionean.

Zuzendaritza Batzordean presidente, presidenteorde eta idazkari karguak dituzten kideek jardungo dute eginkizun horietan.

Kidetu bakoitzak boto bat emateko eskubidea izango du eta ordezkariak kideetako beste enpresa bati eskuordetuko zaio; berdinketa dagoenean, presidentearen botoak ebazteko indarra izango du.



Zuzendaritza Batzordea

Mutuaren zuzeneko gobernuaz arduratzen den kide anitzeko organoa da, eta bere interesak defendatzeko beharrezkoak dituen zuzendaritza, administrazio, xedapen eta betearazpen eskumenak ditu, halaber.

Indarrean dauden estatutuen arabera, enpresa kideak osatuko dute; ez dira izango zazpi baino gutxiago, ez eta hogeitau baino gehiago ere, Batzar Nagusiko kide den Mutuarekiko langileen ordezkariak barne. Nahiz eta, indarrean dagoen 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren arabera (gai honi dagokionez araudia garatzeko dago) kideen kopurua hamar izan, kide bat gehiago sartuko da (norbere konturako langilea), Mutuari atxikitako norbere konturako langileak ordezkariak ditzan.

Batzar Nagusiak izendatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kideak, erakundearen langile-ordezkaria izan ezik, hori enpresa-batzordeak aukeratuko baitu. Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak berretsiko ditu kide guztiak, azken hori izan ezik.

Zuzendaritza Batzordea hiru hilean behin elkartzen da ohiko bilerak egiteko, eta behar beste alditan, berriz, ezohikoak egiteko, presidentek deialdia egiten duenean zein kideen herenak hala eskatuta. Bilerak erakundearen egoitzan nahiz Zuzendaritza Batzordeak berak adierazitako beste edonon egin ahalko dira.

Ez presidentek (ez du izaera exekutiborik), eta ez Zuzendaritza Batzordea osatzen duten gainerako kideek ere, ez dute inolako ordainsaririk jasoko, bileretara joateagatik jasotzen diren konpentsazioak izan ezik. Horiek otsailaren 4ko 246/2010 TIN aginduan ezarrita daude, eta horren arabera Mutuen Zuzendaritza Batzordearen eta Prestazio Berezien Batzordeko kideei eman beharrezko konpentsazioak ezartzen dira.



Zuzendaritza Batzordea

Presidentea	Urtza Errazti y Olartecoechea	Jez Sistemas Ferroviarios SL
1. presidenteordea	José M ^a Echarri Campo	Sociedad Financiera y Minera SA
2. presidenteordea	Jesús M ^a Echave Román	Sociedad Alavesa de Inversiones SA
3. presidenteordea	Alberto Delclaux de la Sota	Prodol Meditec SA
Idazkaria	Santiago Iriarte Aizarna	Deustuko Unibertsitatea
Idazkariordea	Javier Ortega Tapia	Tuboplast Hispania SA
Kidea	Javier Sánchez Pérez	ArcelorMittal Gipuzkoa SLU
Kidea	Ignacio Toledano Yaniz	Calcinor SA
Kidea	Javier Treviño Izquierdo	Gamesa
Kidea	Andrés Zearreta Otazua	Eusko Jaurlaritza
Kidea	Javier Otaño Echaniz	Krafft SL
Kidea	Antxon Segurola Jáuregui	Kutxabank SA
Kidea	José Ignacio Zudaire Arana	Petróleos del Norte
Kidea	Álvaro Garcia- Navarro Aguirre	Tubos Reunidos SA
Kidea	Angel Jareño Goikoetxea	Uvescaya SL
Kidea	Fernando Salamero Laorden	Vinos Herederos Marques de Riscal SA
Mutualiako langileen ordezkaria		Irene Ruiz de Argandoña Villar

Batzorde Exekutiboa

Zuzendaritza Batzordeak Batzorde Exekutiboa osatu du bere kideen artean, mutualitatea zuzentzeko, administratzeko eta ordezkatzeko zereginetan lehenbailehen has dadin erraztearren.

Hamar kide edo kide gutxiagok osatua da. Hilean behin biltzen da ohiz.

Presidentea	Urtsa Errazti y Olartecoechea	Jez Sistemas Ferroviarios SL
1. presidenteordea	José M ^a Echarri Campo	Sociedad Financiera y Minera SA
2. presidenteordea	Jesús M ^a Echave Román	Sociedad Alavesa de Inversiones SA
3. presidenteordea	Alberto Delclaux de la Sota	Prodol Meditec SA
Idazkaria	Santiago Iriarte Aizarna	Deustuko Unibertsitatea



Zuzendari kudeatzailea

Mutuaren zuzendaritza exekutiboa gauzaten duen organoa da, bere helburu orokorrak eta erakundearen ohiko zuzendaritza garatzen ditu, Zuzendaritza Batzordeak eta Presidenteak esleitzen dizkion irizpide eta aginduen mende egongo da, eta mutuarako Gizarte Segurantzarekin lankidetzan jarduten duen erakunde gisa ezarritako araudia aplikatuta.

Bere ahalmenak, mugak, debekuak eta erantzukizunak erakundearen estatutuetan daude jasota. Zuzendaritza Batzordeak izendatuko du; dena den, izendapena eta goi-mailako zuzendaritzaren lan-kontratua eraginkor izan daitezen, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren berrespena beharko da.

Zuzendari kudeatzailea: Ignacio Lekunberri Hormaetxea



Kontrol eta Jarraipen Batzordea

Agente sozialen partaidetza-organoa da eta beste eskumen batzuen artean, berari dagokio hainbat lankidetz-modalitatetan erakundeak egiten duen kudeaketa ezagutzea eta horri buruz informatzea.

Hamar kide ditu, mutualitatearen kuoten arabera. Kide horien erdiak babestutako langileen ordezkariak dira, erakundeak lan egiten duen lurralde-eremuko sindikatu adierazgarrienen hautatuak, eta beste erdiak enpresa kidetuen ordezkariak dira, ordezkariak handiena duten enpresen bidez hautatuak. 8/2015 Legegintzako Errege Dekretu berriak langile autonomoen profesionalen elkarteen ordezkariak bat sartzen du.

Enpresa kidetuen ordezkariak

Presidentea	Urtsa Errazti y Olartecoechea	Jez Sistemas Ferroviarios SL
Kidea	Gonzalo Salcedo Bilbao	CEBEK
Kidea	Pedro Campo Iglesias	CEBEK
Kidea	Manuel Guerrero Igea	ADEGI
Kidea	Enrique González Sal	SEA

Sindikatuaren ordezkariak

Kidea	Alfonso Ríos Velada	CC.OO.
Kidea	Luis Mouliaa Mayor	CC.OO.
Kidea	Leire Heredia Bilbao	ELA
Kidea	Esperanza Morales Quicios	UGT
Kidea	Ibon Zubiela Martin	LAB

Prestazio Berezien Batzordea

Gizarte-laguntzaren erreserbatik eratorritako etekinak langile babestuei edo atxikiei eta eskubidedunei esleitzeko organo eskuduna da. Azken horiek baldin eta kontingentzia profesionalak estalita badituzte, lan-istripu bat edo gaixotasun profesional bat pairatu badute eta egoera berezi edo premia-egoera batean badaude. Onurak hautazkoak izango dira, eta Gizarte Segurantzaren babes-ekintzan sartzen direnetatik independenteak.

Hamar kidek osatuko dute, horietako bost enpresa kideak ordezkatuko dituzte eta beste bostek langile babestuak.

Presidente eta presidenteordearen karguak bi urtekoak dira eta enpresen ordezkariek zein langile babestuek hautatuko dituzte txandaka.


8/2015 Legegintzako Errege Dekretu berriak langile atxikien ordezkaritza bat sartzen du.

Presidentea	Álvaro Plaza Reino	ArcelorMittal Gipuzkoa SLU
Presidenteordea	José Enrique Arroyo Villalba	UGT
Idazkaria	Jokin Ganboa Agirre	Estampaciones Metálicas Bizkaia SA
Kidea	José Hernández Duñabeitia	ASLE
Kidea	José M ^a Echarri Campo	Sociedad Financiera y Minera SA
Kidea	Elena Izquierdo Cuadrado	Zayer SA
Kidea	Alfonso Ríos Velada	CC.OO.
Kidea	Leire Heredia Bilbao	ELA
Kidea	Andoni Larralde Etxarte	ELA
Kidea	Asier Goitia Torrontegui	LAB

Zuzendaritza Batzordea

Mutuako zuzendaritza exekutiboaren kide anitzeko organoa da, eta helburu orokor zein operatiboak garatzen ditu; hala, erakundearen ohiko zuzendaritza gauzatzen du.

Zuzendari gerentea da burua, eta funtzio exekutiboak garatzen dituzten gainerako kideak, goi-mailako zuzendaritza-kontratuen bidez elkartuak, zuzendariaren mende egongo dira eta haren mugak, debekuak eta erantzukizunak izango dituzte.



Kudeaketaren jarraipena

Ignacio Lekunberri Hormaetxea
Zuzendari kudeatzailea

Jorge Arbaiza Zabalo
Administrazio Zerbitzuen eta Eragiketen zuzendaria

Victor Echenagusia Capelastegui
Osasun Zerbitzuen zuzendaria

Lorena Aguirregabiria Castresana
Baliabide eta Aliantza Operatiboen Kudeaketako
zuzendaria

Verónica Estrade Royo
Barne Auditoretzako zuzendaria

Diego Badosa Quintana
Langile Autonomoen Jarduera Eteteko zuzendaria

Miren Fernández Mujika
Kontingentzia Arrunten zuzendaria

Luis Canel Crespo
4. Lurralde Unitateko zuzendaria

Imanol Goirigolzarri Sáez
Prestazio Ekonomikoen zuzendaria

Ismael Calle Sobron
Bezeroen Kudeaketako zuzendaria

Lourdes Gondra Eguzkiza
Ekonomia eta Finantzako zuzendaria

Susana Castaños del Molino
Aholkularitza Juridikoko eta Betetze Korporatiboko
zuzendaria

Verónica Huidobro de Diego
Erakundearen eta Arriskuen Kudeaketaren
zuzendaria

Javier De La Fuente Ortiz de Zarate
Gipuzkoako zuzendari medikoa

Iratxe Ijalba Izaguirre
Informazio Sistemen zuzendaria

Jon Irizar Huguet
Euskara-dinamizatzailea

Jesús Ruiz Armiño
Bizkaiko zuzendari medikoa

Raúl Medina Valbuena
Pertsonen Kudeaketako zuzendaria

Miguel Ángel Ulibarrena
Arabako zuzendari medikoa

Cristina Mendi Ibarrola
Berdintasuneko zuzendaria

Juan Villar Caballero
Arabako lurralde-zuzendaria

M^a Luisa Ortiz Salvador
Gai Juridikoetako zuzendaria







03

NOR GARA?

Erakundearen profila

Kudeaketa-eredua

Kode etikoa

Finantza Inbertsioen jokabide-kodea
Nazio Batuen Munduko Hitzarmenera
atxikitzea

Esparru juridikoa

Erakundearen profila

Mutualia Gizarte Segurantzarekin lankidetzan duen 2 zk.ko mutua da; zehazki, honako hauetan aritzen da elkarlanean:

- a) Gizarte Segurantzako laneko istripu eta gaixotasun profesionalen ondoriozko gertakarien babesean sartzen diren prestazio ekonomikoak eta osasun-laguntzak kudeatzen, errehabilitazioa barne dela, baita babes-ekintzak eskaintzen dituen gertakari berorien inguruko prebentzio-jarduerak kudeatzen ere.
- b) Gertakari arruntek eragindako aldi baterako ezintasunagatiko prestazio ekonomikoa kudeatzen.
- c) Haurdunaldiko eta edoskitzaro naturaleko arriskuengatiko prestazioak kudeatzen.
- d) Norberaren konturako langileek jarduera uzteagatik dituzten prestazio ekonomikoak kudeatzen, abuztuaren 5eko 32/2010 Legean ezarritako moduan, bertan xedatzen baita langile autonomoak jardura utzi ostean babesteko berariazko sistema.
- e) Minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeak zaintzeagatiko prestazioaren kudeaketa.
- f) Legez esleitzen zaizkion Gizarte Segurantzaren gainerako jardueretan.



Misioa

Mutualia, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan duen 2. zk.ko Mutua, enpresen elkarte pribatu bat da, irabazi-asmorik gabekoa, eta bere helburua da enpresa kideak eta pertsona babestuei zuzendutako zerbitzu sanitarioak, prestazio ekonomikoak eta prebentzio-jarduerak kudeatzea.

Prebentzioaren kultura sustatzen du, bai bezeroen artean, bai gizartearen.

Horretarako, osasuna, bizi-kalitatea eta bere interesdun taldeen gogobetetzea hobetzea helburu duen kudeaketa aurreratuko eredu bat aplikatzen du, produktu berritzaileen eta pertsona konprometituen eskutik, gizartearekiko erantzukizunez jardunez eta Gizarte Segurantzaren Sistemaren jasagarritasuna bermatzea bilatuz.

Ikuspegia

Mutualitate eraginkorra eta osasunaren alorreko zaintzan erreferentziakoa izatea, bezeroari bideratutakoa, kudeaketa aurreratua, pertsonetikiko konpromisoa eta korporazioaren izen ona bermatzea oinarri izanik eta berrikuntza sustatuz.

Ildo estrategikoak

Mutualia gaur egungo planean jasoa dagoen bezala, bere ikuspegitik ateratzen diren ildo estrategiko hauek identifikatu ditu.



Balioak

Mutuliaren Misioak zehazten du zer garen: mutua bat. Baina balioak dira gure ekintzak egunez egun bideratzen dituztenak, eta zer-nolako mutua garen adierazten dutenak; balioak dira gure egiteko modua.

Mutuliaren balioak mutuako pertsonak aukeratu eta zehaztu dituzte; horrela, koordinatuta, arinki eta Mutualia «izan nahi dugun mutua» dela sentituz funtzionatzen lagunduko diete balio horiek. Balioak gure konpromisoa dira.

Hona hemen Mutuliaren adierazgarri izatea nahi ditugun balioen mapa:



Kudeaketa-eredua

Mutualiak gure kudeaketa hobetzearen alde egiten dugu, epe luzearako ikuspegi malgua edukita, agertuko diren erronkei Kudeaketa Aurreratuko Ereduaren bitartez aurre egin ahal izateko.

Eredu hori hartu dugu, gure kudeaketa-sistema ebaluatu eta hobetzeko erreferentea dena, jakitun baikara berebiziko garrantzia duela estrategia garatzeko, gure bezeroak pozik egoteko, pertsonak inplika daitezen, aldaketa kudeatzeko eta etengabe hobetzeko.

Kudeaketa Aurreratuko ereduak 6 osagai nagusi ditu; erakundearen lehiakortasuna egituratzeko ardatza den kudeaketa-sistema garatzeko oinarria dira horiek, eta hainbat esparrutatik hartutako kudeaketa-kontzeptuak ere hartzen ditu barnean; honako hauek: Ezagutzaren kudeaketa, erabateko kalitatea, bikaintasuna kudeaketan, berrikuntza eta erantzukizun sozial enpresariala, besteak beste.

Kudeaketa Aurreratuaren ereduaren 6 osagaiak.




Mutualiak eskaintzen dituen zerbitzu guztien kudeaketa, haien interfazeak eta bezero, aliatu eta hornitzaile eta bestelako interes-taldearen integrazioa eta parte-hartzea, horiek guztiak ezinezkoak lirateke erakunde osoa bat etorrita lerrokatuko dela bermatzen duen egiturarik gabe. Hori dela eta, funtsezkoa izan da Kudeaketa Aurreratuaren ereduaren eta prozesuakako kudeaketaren hautua egin izana.

Prozesu bakoitzaren eraginaren arabera eta ildo estrategiko bakoitzaren arrakastako faktore kritikoak erdiesteko duten kontribuzioaren arabera antolatu dira prozesuak. Guztiak daude estrategiarekin lerrokatuta, helburuak erdiesteko funtsezko prozesuak eta prozesu lagungarriak zein diren identifikatuta.

Gure estrategia prozesuen kudeaketa-planen zein ezarritako adierazleen jarraipena eginez berrikusi eta ebaluatzen dugu, eta ezarritako helburuen aurrerapen-maila zein den ezagutu ahal dugu horri esker.

Kudeaketa-eredua



Kudeaketa-eredu honekin dugun konpromisoa hainbat alditan saritu da, eta gure kudeaketarengatik lortu dugun azken saria Pertsonen Kudeaketa Aurreratuaren Euskal saria izan da.

URTEA	GERTAERA GARRANTZITSUAK
2016	<p>Pertsonen Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Saria</p> <p>Laguntza Kalitateko Bikaintasunaren QH egiaztagiria OINARRIZKO ZIGILUA + IZAR 2 kategorian</p> <p>Osasun-arretari lotutako infekzioak prebenitu eta kontrolatzeko, Arriskuak Kudeatzeari buruzko UNE 179006:2013 ziurtapena</p>
2015	<p>Laguntza Kalitateko Bikaintasunaren QH egiaztagiria OINARRIZKO ZIGILUA + IZAR 1 kategorian</p> <p>Kudeaketa Aurreratuari Urrezko A Saria</p> <p>Efizientzia Energetikoari buruzko ISO 50001 ziurtapena</p>
2014	<p>Mutualia App, aplikaziorik onena Administrazioa eta Smart City kategorian START BISCAY-App'14 lehiaketan</p> <p>Pazientearen Segurtasunaren Arriskua Kudeatzeari buruzko UNE 179003 ziurtapena</p>
2013	<p>Familia Erantzukizuneko Enpresa ziurtapena</p> <p>Jardunbide egokien saria – Euskadi; Jardunbide egokien sariaren III. edizioko finalista maila nazionalen; EFQM jardunbide egokien sariaren finalista, Europa mailan, Lidera proiektuarekin</p>

2012	ISO 14001 ziurtapena Bikaintasunaren EFQM Europako sarien finalistak Lidera proiektua sortzea OHSAS 18001 ziurtapena
2011	Euskaliten presidentetza Lidergoaren ebaluazioa zabaltzea liderren % 100era Historia kliniko digital propioa garatzea, baliabide propioekin
2010	Business Intelligence (COGNOS) sistema ezartzea Kalitatearen Iberoamerikako saria, zilarrezko kategoria
2009	Diploos saria – Laneko Segurtasuneko Espainiako Trofeoa. Nazio Batuen Munduko Hitzarmenera atxikitzea
2008	Urrezko Q saria I. Berdintasun Plana sinatzea GS Memoria egitea, GRI oinarri hartuta, A+ kalifikazioarekin
2007	Erantzukizun sozialaren memoria balioestea. GRI 3- A+ sailkapena Bizkaia Foroaren errekonozimendua, EG Erekin izandako aurrerapenarengatik eta konpromisoarengatik Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentzian sartzea Kalitaterako Euskal Fundazioaren Patronatuan (Euskalit) sartzea
2006	Erantzukizun sozialaren memoria balioestea. GRI 3- B+ sailkapena
2005	Kudeaketaren Zilarrezko Q saria

Emandako estaldurak eta zerbitzuak

Mutualiak eta Gizarte Segurantzarekin lankidetzan jarduten duten gainerako mutuek beren kide-tuei eta atxikiei eskain diezazkien estaldurak legeak arautzen ditu.

Horregatik, estaldura horietan dagoeneko existitzen diren zerbitzuak hobetzen eta zerbitzu berriak diseinatzen saiatu gara, finean gure kide-tuen eta atxikien beharrak eta itxaropenak ahal den neurrian asetzeko.

Laneko istripuak eta lanbide-gaixotasunak

Lan-arriskuen prebentzioa

Osasun-laguntza

Prestazio ekonomikoa

Kontingentzia profesionala

Haurdunaldiko eta edoskitzaroko arriskua

Lanpostu-azterketak eta enpresei aholku emateko bisitak

Arriskuaren eta osasunaren egoeraren balorazioa prestazioaren jatorriaren txostena eginez

Prestazio ekonomikoa

Gaixotasun larriak dituzten adingabeak zaintzea

Kasuen balorazioa

Prestazio ekonomikoa

Kontingentzia arrunta

Bajen kontrola eta jarraipena

Prestazio ekonomikoa

Langile Autonomoen Jarduera Etetea

Prestazio ekonomikoa



Arriskuen kudeaketa

Mutualiak funts publikoak eta nahitaezko prestazioak (haien estaldura eta emateari dagokionez) kudeatzen dituen Gizarte Segurantzaren erakunde laguntzailea denez, bere jarduerako arriskuak kudeatzen ditu indarrean diren legeei eta jardueren espezifikotasuna dela-eta interes-taldeetan eragina sor dezaketen alderdiei lotuta.

Horretarako, hiru defentsa-lerro hauek oinarri dituen eredua ezarri du:

Lehen defentsa-lerroa: negozio-jardueren arduradunak, jardueren indarguneak eta ahuleziak hoberen ezagutzen dituztenak baitira eta, ondorioz, baita haiei lotutako arriskuak ere. Pertsona egokienak dira zehazteko zer kontrol behar diren arriskuak maila onargarrietan egon daitezzen.

Bigarren defentsa-lerroa: Mutualiak, Politika eta Estrategiako Prozesuaren barruan, Arriskuen Kudeaketa izeneko azpiprozesua zehaztu du. Arrisku-mailak aldiaren behin aztertu eta jarraitzeko lanak hartzen ditu bere gain, barneko kontrol-mekanismoak aski direla bermatzen du, eta arriskuen estrategia prozesuen kudeaketaren barruan txertatzen dela zaintzen du.

Hirugarren defentsa-lerroa: barneko auditoretza da, Mutualiako arrisku-kudeaketaren, kontrolaren eta gobernu korporatiboaren prozesuak eraginkorrak diren, modu independente eta objektibo batez, berrikusi eta balioesteko.

Mutualiak kontrol-egitura ezin hobea bermatu nahi du eredu horren bidez, arrisku-mailei buruzko informazioa aldiro ezagut dadin erakundearen, eta maila horiek onargarriak izan daitezzen helburu estrategikoak lortzeko begira.



Arriskuen tratamendua

Zuzendaritza Batzordeko batzorde exekutiboak onartu du Mutualiako Arrisku Appetitua; Mutualiak helburuak lortzeko gehienez onartuko duen arrisku-maila zehazten du.

Arriskuen Mapan honako hauek zehazten dira: lotutako arriskuak, gertatzeko aukeraren arabera balorazioa, erakundearen zer eragin duten, haiek arintzeko dauden barne-kontrolleko mekanismoak eta Mutualiako egungo arrisku-apetitua. Mapa horren bitartez haietako bakoitzaren tratamendu-maila ezartzen da kritikotasuna aintzat hartuta.

Kode etikoa eta arrisku penalak prebenitzeko plana

Kode etikoa Mutualia osatzen duten pertsona guztiek jarraitu beharreko jokabide profesional eta etikoko barne-arau nagusiak biltzen dituen lana da, tartean tratu berdintasuna eta bereizkeriarik eza, laneko segurtasuna eta osasuna, intimitaterako eskubidea, ebaluazioa, prestakuntza eta informazioa, eta interes gatazkak bezalako arloak arautzen dituelarik. Mutualiako Zuzendaritza Batzordeak, 2015eko uztailaren 13ko bilkuran, onartutako azken bertsioan handitu egin da haren aplikazio-eremua, gobernu-organoak eta Prestazio Berezien Batzordea barnean har zitezen.

Kode etiko hori, delitu-inputazioak prebenitzeko araudia, debekatutako jokabideen katalogoa eta jakinarazi eta salatze kanala Mutualiak ezarritako pertsona juridikoen erantzukizun penalaren prebentzio-planaren funtsezko dokumentuak dira eta hau du helburutzat: zaintza- eta kontrol-neurri egokiak ezartzen dituen antolakuntza- eta kudeaketa-eredu bat ezarri eta eraginkortasunez betetzea, delituak egiteko arriskua prebenitzeko edo modu esanguratsuan murrizteko delituok egin aurretik.

Mutualiak Zigor Zuzenbideko eta Complianceko Zuzendariaren Irizpena jaso zuen 2015eko abenduaren 16an Pertsona Juridikoen Erantzukizun Penal Prebenitzeko Programa ezartzen lankide dugun kanpo-enpresaren eskutik, programaren eratze, egikaritze, ezartze eta zuzendaritzako kideen eta langileen artean hedatzeari dagokienez, Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duen martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoari jarraikiz.

Kide anitzeko barneko organoa den Betetze Korporatiboko Batzordeak, Aholkularitza Juridikoko eta Betetze Korporatiboko zuzendaria haren buru izanik, zaindu eta bermatzen du Kode etikoa eta arrisku penalak prebenitzeko sistema osatzen duten barneko gainontzeko arauak zorrotz bete daitezen.

Hartarako, era guztietako ustelkeria prebenitze aldera, Betetze Korporatiboko Batzordeak bere kideak trebatzeko etengabeko programa bat ezarri du, baita aldizkako prestakuntza eta barneko komunikaziorako plangintza ere, Mutualiako kide guztiak arlo horretan sensibilizaturik egon daitezen.



Finantza Inbertsioen jokabide-kodea

Balore Merkatuko Batzorde Nazionalaren 2003ko azaroaren 20ko Akordioaren bidez onetsi zen eta 2004ko urtarrilaren 8ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Balore-merkatuan aldi baterako inbertsioak egiteko irabazi asmorik gabeko erakundeen jokabide-kodea betetzen dugu.

Mutualiak kode hori arautzen duten printzipioak azpiprozesu finantzarioan egiten dituen finantza-inbertsio guztietara zabaldu ditu. Horretarako, prozedura bat landu du eta bertan biltzen dira Finantza Inbertsioen Batzorde bat sortzea, zuzendaritzako langileek osaturikoa. Langile horiek nahikoa jakintza tekniko izango dute, edo behintzat, hirugarrenen aholkularitza profesionala kontratatuzko ahalmena.

Finantza-azpiprozesua zehaztean inbertsioen jokabide-kodea betetzen dela kontrolatzeko honako adierazle hauek gehitu dira eta 2016ko ekitaldian balio hauek izan dituzte:

Gizarte Segurantzza

EPE LABURREKO LIKIDEZIA	2,067
SEGURTASUNA (S&Pk onartutako gutxienekoa)	BBB
ERRENTAGARRITASUNA (diruzaintzaren guztizkoa)	% 3,46
ERAGIKETA ESPEKULATIBO KOPURUA	0

Ondare Historikoa

Diruzaintzako guztizko errentagarritasuna % 1,986 izan da.

Aurreko jokabide-kodea alde batera utzita, abenduaren 11ko 1993/1995 Errege Dekretuaren, mutualitateen arteko elkarlanerako erregelamendu orokorraren, 30. artikuluan xedatutakoa ere bete du Mutualiak. Artikulu horrek erreserba eta funts propioen gauzatzea zein finantza-inbertsioak arautzen ditu, eta 2016ko ekitaldian egindako finantza-inbertsioen eskuraketa eta besterentze guztiei aplikatu zaie.

Azkenik, prozesua ahalik eta gardenena izatea helburu eta Finantza-inbertsioen jokabide-kodea jarraituz, Mutualiak **Finantza-inbertsioen jokabide-kodearen betetze mailaren gaineko Finantza Inbertsioen Batzordearen txostena** egiten du urtero, Zuzendaritza Batzordeak onartu behar duena eta enpresariei aurkezten zaiena ohiko batzar orokorrean.

Nazio Batuen Munduko Hitzarmenera atxikitzea

Nazio Batuen Munduko Hitzarmenera atxikita dago Mutuaia 2009az geroztik. Gure memoria aurkezten dugu urtero, Aurrerapen Txostenaren eginkizuna ere baduena; horren barruan erakundearen egiten ditugun jarduerak guztien berri ematen dugu, Munduko Hitzarmeneko printzipio guzti-guztiek dugun konpromisoaren erakusle:



Nazio Batuen Munduko Hitzarmeneko 10 printzipio horiek, giza eskubide, lan, ingurumen eta ustelkeriaren aurkako alorrean, adostasun unibertsala dute eta hemendik datoz:

- Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala.
- Lanaren Nazioarteko Erakundearen Deklarazioa, Laneko Printzipio eta Eskubideei buruzkoa.
- Ingurumenerako eta Garapenerako Rio de Janeiroko Adierazpena.
- Ustelkeriaren aurkako Nazio Batuen Hitzarmena.

NBEren Munduko Hitzarmenak giza eskubide, lan-arau, ingurumen eta ustelkeriaren kontrako arloetan funtsezko balio batzuk hartu, babestu eta aldarrikatzeko eskatzen die enpresei, nork bere eragin-esparruan.

Gainera, 2015etik, mundu-garapenerako Garapen Jasangarriaren Helburuekin ere bagaude konprometuta, eta horiei guztiei erantzuten diegu memoria honetan; hala bada, GRI edukien taulan GRI eta GJH adierazleen zein Munduko Hitzarmenaren printzipioen arteko korrespondentzia jaso dugu.



Esparru juridikoa

